


EDUARDO SOURROUILLE

2023ko urriak 6 - 2024ko otsailak 25



Rekalde Aretoak *Varietés* erakusketa aurkezten du, Eduardo Sourrouille (Basauri, 1970) artistaren azken proiektua.

Erakusketak obra berriak biltzen ditu instalazio-proposamen batean, marrazki, argazki eta bideoekin, eta ikuspegi kritiko eta garratz samarra garatu nahi du giza egoerari buruz, teatralizazioaren bidez eta gorputza bera eszenaratzuz.

Erakusketa hainbat ekitaldi eta eszenatan antolatuta dago, non serie bakoitzak ekitaldi bat irudikatzen duen sartzen dagoen ikuspegi desberdinetan barruan, eta bertan parte har dezakegun.

VARIÉTÉS

Varietés de variétés

Erakusketa proposamena, *Variétés* izenburuari erreferentzia eginez ekitaldi eta eszena desberdinetan antolatzen da. Oraingo honetan, gorputza bera eszenaratzeko da, aztertuta izateko. Protagonista eta bilbea da aldi berean. Ikuspegi kritiko batetik, baina agerian erabiltzen, zalantzan jartzen da gorputza, bere jarrera eta egoera guztietan, eta agerian geratzen da giza izaera bera.

Erakusketa artistak azken urteetan egindako serie desberdinetan antolatzen da. Guztiek gai bera dute, baina ikuspuntu desberdinetatik aztertzen da. Serie bakoitzak ekitaldi bat irudikatzen du antzerki-ikusketarekin, eta bertan sartu eta parte har dezakegu. Eta parte-hartzaileak gara, istorio horren parte garelako; istorioa modu desberdinetan kontatuta dago, ikuspegi desberdinetatik, ordena desberdinetatik, goitik edo behetik... barietate horrek aukera ematen baitigu egon daitezkeen harremanak eta portaerak biltzeko.


Istori honetan gorputza da protagonista, bere gorputza, batzuetan arrotza egiten zaion arren, edo ezagutzen ez badu ere. Izan ere, arauak eta legeak araututako ahozko hizkuntzak ez bezala, gorputz-hizkuntzak hurbilago du irristaldia, agerian uztea. Eta keinuaren antzerkiaren lengoia horrek eta bere gorputzaren eszenifikazioak agerian jartzen dute pertsonaia, bere pertsonaia, bera. Horrek bere (gure) identitateari buruz hausnarketa egitera darama (garamatza).

Ez da lehen aldia, Eduardo Sourrouilleren obran gehiagotan sortu da idatzi gabeko elkarrizketa hori, irudia gauzaten duenaren eta irudian agertzen denaren artean, bere gorputzaren performatibitatea eta eraikuntza ageri-agerian baitaude bere obran. Oraingoan, antzezteko espazioa antzerki-gune bihurtzen da. Kutxa beltza eta kide dituen aktoreak dira, *troupea*, artista komedianteen talde bat, eta subkontzientearen aurrean irudikatzen dute, non larrazalak eta gorputzak mutante-itxura hartzen duten. Artistak probokatzeko erabakitzen du, elkarrizketa, ironia edo ilusioa sortzeko eta, horrela, narritiba berria eraikitzeko / aldarrikatzeko.

Erakusketan autobiografikoa da, bere bizipen biografiko eta/edo kolektiboak osatzen dituzten pasarte horien bidez egina. Saiakera bidualko horrek, non aztergaia nonbera baizik ez den, zenbaitetan, *voyeur* bihurtzen du; bat eta bera da begiratzen duena eta behatua dena edo errebotatzen dena, ispliuarekin gertatzen den bezala. Disekzionatzea, ulertzea, ikustea, maitatzea, sentitzea, bizitzea, negar egitea, ukatzea, barre egitea...

Erakusketak duen eszenografiaren, bere praktika artistikoa bizi-koreografia gisa aurkezten da, eta honako ekitaldi hauek ditu:

(Kalean gaude, Rekalde Aretoaren aurrean. Jendea espaloian gurutzatzen da. Pertsona bat gelditu eta irakurtzen du: "Eduardo Sourrouille; Variétés". Gortina gurutzatu, eta barruraten da. Beste pertsona batek atzetik jarraitzen dio, argiak erakarrita, eta, lehen bezala, gortina zeharkatu eta barruraten da. Goazen.)



Sin título, (Newton&Bellmer), 2015
Argazkia, 150 x 150 cm

ESZENA

Erakusleihoa. Kutxa beltza. Banbalinak.

Argazkigintzaren historiako bi irudi mitiko kopiatzen dira, Bellmer eta Newton beren papinekin jostaten.



Cáscaras, 2017
Argazkia, 175 x 130 cm

I. EKITALDIA (CÁSCARAS)

Atarte. Zuria. Eskuinean zortzi argazki.

Autoretretuen aukeraketa bat, non artista irudi "bikoitz-faltsu" batean gorputzen den. Irudi bikoitz horietatik abiatuta, gogoeta egiten du gaur egungo gizartean identitatea eraikitzeko dauden moduei buruz.



Laboratorio Dibujario, 2022
Argazkia, 70 x 105 cm

II. EKITALDIA (DIBUJARIO)

Aretoa sarrera. Zuria. Paper gaineko marrazkiak metatuta. Ispilua. Isla.

Marraskien egunkaria aurkezten da, Dibujarioa. Argazkigintzako prozesu-lanaren hedadura dira. Egunero marrazteko ariketa bat, paperari begiratu gabe eta bere burua begiratzuz ispilu batean. Hausnarketa-puntu berri metodiko bat artistaren lanaz.



Rutas de pasión, 2018
Argazkia, 70 x 105 cm

III. EKITALDIA (RUTAS DE PASIÓN)

Larru-koloreko gela; zoria eta hormak. Argazki-monokromatikoak; Azala.

Hainbat kapitulutun garatzen den argazki-bineten sorta, Roland Barthes-en *Fragments d'un discours amoureux* liburutik abiatuta. Planteatzen da zalantzan jartzea maitasun-harreman narratiboa eta maitasun-subjektuaren esperientzian nagusi den kontakizuna.




La troupe, 2022
Argazkia, 70 x 105 cm

IV. EKITALDIA (LA COMEDIA DEL ARTE, LA TROUPE)

Espazio beltza; zoria eta hormak. Argazki-multzoa.

Antzezleen taldea, beren gorputz artikulatueta harrapatuta eta maskaretan ezkatututa. Dramatizazioetik, umoreaz eta ironiaz, mundu erreala eta fikziozko baten afektu lausotuak erakusten dituzte, ezkatutzeko eta erakusteko joko bikoitz batean.



Afecté, 2020
5 Bideo

VI. EKITALDIA (AFFECTÉE)

Kutxa zuria. Behatxuloa. Voyeur.

Bost bideo, auto-koreografia tragikomikoa, konfinamendu-garaiko koreografia-lehiaketa baterako eginak. Ilusioaren, umorearen eta, jakina, maitasunaren bidez, "antzezleek" dantza iradokitzaile eta artifizial bat egiten dute, musika-pieza mitikoetan oinarrituta: *Swan Lake*, *Cascanueces*, *Libertango*, *Vogue* eta *Fandango*.

Itxaso Mendiluze

eduardosourrouille.com

1970ean jaio zen Basaurin (Bizkaia). Arte Ederretan lizentziatu du UPV/EHU ikus-entzunezkoetan (1993), eta eskulturan egin zituen doktoretza ikastaroak (2021). Espazio Marzana (Bilbo, 2020), 2019an ArteSantander eta Galeria Vanguardia (Bilbo) Rut Olabarriekin batera. Gainera, *68aren ostean. Artea eta praktika artistikoak Euskal Herrian, 1968-2018* erakusketan parte hartu zuen Arte Ederren Museoan (Bilbo). Miriam Ocarizek 2018-2019 bitartean Bilboko Rekalde Aretoan egindako erakusketaren komisarioa izan zen.

Banakoaren artean, nabarmentzekoak dira *Villa Antonio*, Mexiko Hirian, Luis Adelantado galeriarekin (2010), eta *Villa Edur*, Gasteizko Artium Museoarekin (2009), beste galeria, museo eta arte-zentro batzuekin batera, Bordelen, Genevan, Valentzian, Bilbon, Santanderren, Roterdamen eta Buenos Airesen. Era berean, arte-azoketan parte hartu ohi du, hala nola MACOn, Miami Art Basel-en, Arcon eta Paris Photo-n. Bere lana Artium Museoko, Kantabriako Gobernuako, Bizkaiko Foru Aldundiko eta beste bilduma publiko eta pribatu batzuen parte da.

rekalde

Alameda Recalde, 30 | 48009 Bilbao
Tel. +34 94 406 85 32
www.salarekalde.bizkaia.eus

Orduetgia

Asteartetik larunbetera: 10 - 14 eta 17 - 20:30
Igande eta jarri egunetan: 10 - 14
Astelehenetan itxita

Horario
Martes a sábado: 10 - 14 y 17 - 20:30 h
Domingos y festivos: 10 - 14 h
Lunes cerrado

Opening hours
Tuesday to Saturday: 10 - 14 and 17 - 20:30 h
Sundays and holidays: 10 - 14 h
Monday closed

sarrera doan | entrada libre | admission free

Bizkaia
rekalde aretoa

rekalde

Alda. Recalde, 30 - 48009 Bilbao Tfno. +34 94 4068532 www.salarekalde.bizkaia.net